

## OHARRAK:

### 1.- Nola egiten dira baldintzazko adizkiak?

Iraganeko formak hartu eta aldaketa hauek egin:

ZER EGIN BEHAR DUT?	ADIBIDEA
1.-Ba- aurrizkia jarri.	zitzaidan → bazitzaidan
2.- Hirugarren pertsona bada (eta hauek guztiak halakoxeak dira), hasierako /z/-ren ordez /l/ jarri.	bazitzaidan → balitzaidan
3.- Bukaerako /n/ kendu.	balitzaidan → balitzaida
4.- Kontuan hartu NIRI dela /t/ bukaeran dagoenean, eta /da/ adizkiaren erdian aurkitzen denean.	balitzaida → balitzait

### 2.- Nola egiten dira ondorio oraineko adizkiak? Baldintzazko formak hartu eta aldaketa hauek egin:

ZER EGIN BEHAR DUT?	ADIBIDEA
1.-Ba- aurrizkia kendu.	balitzait → litzait
2.- Bukaeran /ke/ jarri.	litzait → litzaitke
3.- Kontuan hartu NIRI dela /t/ bukaeran dagoenean, eta /da/ adizkiaren erdian aurkitzen denean.	litzaitke → litzaidake

### 3.- Nola egiten dira ondorio oraineko adizkiak? Ondorio oraineko formak hartu eta aldaketa hauek egin:

ZER EGIN BEHAR DUT?	ADIBIDEA
1.- Hirugarren pertsona bada (eta hauek guztiak halakoxeak dira), hasierako /l/-ren ordez /z/ jarri.	litzaidake → zitzaidake
2.- Bukaeran /en/ jarri.	zitzaidake → zitzaidakeen